# Kartoi BIRAKA



markeliñe








Julio Verneren “Munduari bira 80 egunetan” abenturazko eleberriak urrutiko mundu ezezagunak ezagutzeko ilusioa pizten digu. Horrela sortu zen “Kartoi biraka” eta irudimenezko bidaia proposatzen digu munduan zehar.





Gure protagonistak biltegi batean lan egiten duten hiru pertsonaia dira. Orain arte errutinan bizi izan dira baina jolasari esker irudimenezko bidaia zoragarri bat hasteko prest daude.



Bapatean asperraldia eta errutina horiek dibertsio eta abentura bihurtzen dira. Beraien artean pertsona makinatik bereizten duten zerbait sortzen da: jolasteko eta sortzeko gaitasuna.









Orduan kartoizko kaxa xume bat beste zerbaitetan bilakatzen da, hainbat izaera hartuz. Gure irudimena izango da izaera horiei forma emango diena.













Biltegitik irten gabe, globoz, itsasontziz edo gameluz, munduari bira emango diogu hitza erabili gabe. Horregatik, ikuskizun honek behin galdu izan dugun jolas aldiarekin elkartzeko ahalmena dauka. Gure irudimenak jostailua gidatu eta sortzen zueneko jolas aldia.









Estreinatu zenetik “Kartoi biraka” ikuskizunak **700 emanaldi baino gehiago** izan ditu. Eta hainbat herrialdetan ikusi ahal izan da: Espainia, Frantzia, Portugal, Finlandia, Irlanda, Maroko, Kolombia, Dominikar Errepublikan...



"Kartoi biraka" antzezlanak "Ikuskizun hoberena", "Zuzendaritza hoberena", "Talde interpretazio hoberena" eta "Argiztapen hoberena" Sariak lortu zituen **FETEN Haurren Antzerki** jaialdian.

2000. urtean "Haurrentzako ikuskizunik hoberenaren" **MAX Saria** lortu zuen.





markeliñe

Apdo. 141· 48340 AMOREBIETA - ETXANO
TEL.: +34 946733257
markeline@markeline.com

